



Ondorioak
Conclusiones
Conclusions

Euskal Autogobernuaren etorkizuna: Hausnarketa konstruktibo bat

Juan José Álvarez
Editorea

Aurreko legegintzaldian Eusko Legebiltzarrean osatutako Autogobernuaren Lantaldeak egindako lanei esker, XXI. mendearen testuinguruan euskal autogobernua eguneratzeko beharra dugula adostu eta Euskadiko estatus politiko berriari buruzko eztabaidarako oinarriak finkatu ziren. Lan horri esker, ekin ahal izan zaio XI. legegintza berriaren hasieratik autogobernuaren gaiari, aurreko legegintzaldian Autogobernuaren Batzordeak egindako lanari segida emateko asmoz. Aurretik egindako lanak, zalantzarik gabe, eztabaida lasaia eta arrazoizkoa egiten lagunduko du; izan ere, unean-uneko egoera politikoen gainera, gure autogobernuaren etorkizunari buruzko hausnarketa ireki behar da euskal gizartean.

Aintzat hartuta zer nolako garrantzia duen gaiak euskal herritarrentzat, Eusko Ikaskuntzak, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, 2016ko apirilaren 20an Jardunaldi bat antolatu zuen Gasteizen, eta horren helburua zen gure autogobernuaren etorkizunari buruzko hausnarketa anitzari ekitea. Aipatutako jardunaldia da argitalpen honen oinarria. Jardunaldiari esker, botere politikoaren lurralde-banaketako zenbait europar eredu konparatu aztertu ziren, azterketa hori Europar Batasunaren dimentsiora eraman zen eta, azkenik, euskal alderdi politikoen arteko eztabaida egin zen bakoitzak euskal herritarrei proposatzen dien geroko estatus politikoaren inguruan.

Euskal estatus politikoaren geroaren inguruan hiru hausnarketa-binomio handi egon daiteke: lehenengoa, autogobernuaren garapenerako aukerak eta oinarriak (Gernikako Estatutuaren garapena baloratzea); bigarrena, printzipio demokratikoa eta demokrazian sakontzeko mekanismoak (erabakitze eskubidea, autodeterminazio eskubidea, legaltasuna eta legimitotasunaren arteko harremana, kontsulta/erreferenduma) eta, amaitzeko, subiranotasunaren kontzeptua eta lurralde-eredua (gaitasun berriak eskuratzea eta Euskadiko lurralde-koehesioan sakontzea, Konstituzioa berritzeko beharra dagoen edo ez azterzea, simetria-asimetria, eskubide historikoak, aldebakartasuna edo aldebigotasuna...).

Jardunaldietan egindako eredu heterogeneoen azterketa konparatuari esker –Bavaria, Flandes, Suitza eta Eskozia–, ikasketa kontzeptual oso iradoki-

tzaileak lor daitezke eztabaida eta hausnarketa piztu ahal izateko, euskal errealtate soziopolitikoaren proiektioari dagokionez:

- 1) *Suitzaren eredu konfederala*. Kantoiaren subiranotasuna da ereduaren oinarria; horiek euren borondatez bildu dira Konfederazio bat osatuz. Egitura federala da Suitzako lurralde-eredu bitxiaren ezaugarri funtsezkoenetako bat, kantoiaren eta gobernu federalaren artean banatutako subiranotasunaren dimentsioari dagokionez. Aldebikotasuna eta demokrazia zuzena egikaritzea dira Suitzako Konfederazioaren funtzionamendu demokratikoaren metodologia berezia. Suitzako ezaugarri horiek guztiek hausnarketarako eta azterketarako esparru anitz eskaintzen dute.
- 2) *Bavaria eta Alemaniako federalismo modernoaren eredu*. Eredu horretan, estatu bat beste baten barruan kokatzen da. Alemaniako federalismo moderno hori -Bavariako ereduari propio egokitutakoa-, subsidiaritatearen, kohesioaren eta solidaritatearen printzipioetan oinarritzen da. Aldeek (Länderrek) eta beren sendotasunak, osotasuna (Estatu federala) indartzen dute leialtasun aldean zuzen eraginpean: Estatu federalak ez die Länderrei aurre egingo horiek ere Estatu direlako.
- 3) *Eskoziar eta britainiar gobernuaren artean egindako legezko kontsulta itunduaren eredu*. Britainiar pragmatismo politikoaren elementu garrantzitsu bat da erronka politikoak ebazteko orduan politikara jotzeko joera dutela, eta justizia lege-erronkak bideratzeko uzten dutela. Printzipio demokratikoa eta errealtate plurinazionalaren onarpena dira britainiar dimentsioaren ezaugarriak.
- 4) *Flandeseko nazioarteko onarpenaren eredu*. Berezko kanpoko politika eta europar erakundearen aurreko ordezkari zuzena izatea dira eredu horren ezaugarriak. Belgikako errealtatearen ezaugarri nagusia da oso desberdintasun nabarmenak dituzten bi talde elkarrekin bizi direla: Flandriakoa eta Valoniakoa. Federalismo asimetrikoak eta disoziazioak ematen diote ereduari bere berezitasun maila propioa. Komunitate biren identitate nazionala onartzean eta bizikidetzarako ereduaren oinarritzean da Belgikako sistema konstituzionala. Estatu bakar baten pean bizi dira, eta sistema malgu, ireki eta eskuzabal bat dute europar erakundearen aurrean komunitate bateko zein beste diren belgikar herritarren interesen ordezkari zuzenak.

Azterketa konparatu horren ondorioz, argi dago botere politikoaren lurralde-banaketa gairi buruzko azterketa gurean ere Europar Batasunaren ikuspuntutik gauzatu behar dela, eta, hortaz, ondokoa galdetu behar diogu geure buruei: Zer nolako jarrera maila erakusten du Europar Batasunaren eredu heterogeneo horren aurrean? Izango al da Europar Batasuna konponbidearen parte eta lagunduko al du lurralde-eztabaidak bideratzen pragmatismo eta kultura politiko demokratikoan sakonduz, esaterako, identifikatzen lagunduz zein formaren bidez lor daitekeen berezko autogobernua duten errealtate nazionalak (hala nola, euskal eta kataluniar errealtateak) bizikidetzaren harmonikoa izatea espainiar estatuarekin? Eta

horrez gain, nola lor ditzakete beharrezkoak dituzten tresnak beren lurralde-garapenean sakonduz ekarpena egin diezaioten Europar Batasunaren kohesioan eta ekonomia-, gizarte- eta lurralde-garapenari zein XXI. mendeko mundu globaleko erronkei?

Testuinguru horretan, gure artean badira elkarrengandik aldentzen diren jarrerak politikoak; jarrera politiko desberdinak eta era berean legitimoak horiek guztiak (konstituzionalistak, nazionalistak, independentistak, subiranotasunaren aldekoak eta federalistak, besteak beste). Jarrera horiek guztiek, ordea, “euskal kasua” izeneko auzia behin betiko bideratzeko aukerak atomizatzen dituzte eta hortaz, erronka zoru komun bat lortzea da, euskal gizarteak bere esku izan ditzan beharrezkoak dituen tresnarik onenak mende berriak dakartzan desafio garrantzitsuei aurre egiteko. Gure autogobernuaren garapenari dagokionez egungo jarrera politikoei erreparatuta, ondoren azaltzen diren bost eskenatoki posible ikus genitzake, teoriarik behintzat:

- 1) Sistemaren beraren atzeranzko aldaketa (inboluzioa). Eskenatoki hori ezin da baztertu, izan ere, gailenduko litzateke baldin eta nagusituko balitz lurralde-azua administrazioen erredundantzia antzu eta eraginik gabekora murrizten duten tesi zentralizatuak;
- 2) Gaurkoari segida ematea, hau da, berdin jarraitzea “kafea guztiontzat” ereduarekin, eta inprobisazioa erabiltzea sistema eraikitzeke irizpide gisa, agerian dagoen benetako arazoari aurre egin gabe;
- 3) Estatuan elementu eta egitura federalizatuak sortzea federalismo simetriko baten bidez;
- 4) Estatu politikoa eta konstituzio mailan berriaz onartzea demokrazia plurinazionala, autogobernu zabala ezagutzea errealitate nazionaleraino eta estatutu mailako gaiekiko parte-hartzea alde bikotasunaren ideian ainguratzea;
- 5) sezesioa edo independentzia.

Nola irten halako ataka politiko eta instituzionalerik? Nola lortu normaltasunez, histerismorik gabe eta gaizkin bihurtu gabe, nazio izaerak erakunde-onarpenaren estatusa edukitzea, euskal gizartearen gehiengoak nahi duen moduan? Bi bide egongo lirateke helburu horretarantz hurbiltzeko. Lehena, egungo esparru juridikoa haustea litzateke proiektuen eta ideien talkaren bidez, baina bide hori bizikidetzarako arriskutsua izateaz gain ez da eraginkorra (eta gainera gure gizartearen gehiengo handi batek errefusatu du); bigarrena, bide erreformistatik aurrera egitea litzateke, haustura gogorrik gabe, urratsez urrats, pixkanaka, pazientziaz, konstantziaz eta jakituria politikoa sakonduz, pragmatikoa bezain beharrezkoa den bideari helduta.

Horren guztiaren inguruan hausnartu beharko genuke, alde aurretik gaia gaizkin bihurtu gabe eta inor tronuan jarri gabe, akordiorako puntuak bilatzeko jarrerak partekatuz. Gure etorkizuna euskal gizarte moduan horren menpe dago.

Jakina denez, Espainiar estatuan botere politikoen lurralde-antolaketa eta lurralde-egituraren ereduari buruzko definizio eza oso handia da, guztiz anbigua eta zehaztugabea dela esan genitezake. Horren handia da anbigutasun hori, ezen

ondoko mugara heltzen baita: Konstituzioaren VIII. tituluan ez ziren aipatu ere egiten botere politikoaren barneko lurralde-banaketa osatzen duten Autonomia Erki-degoen izenak.

Berriz ireki behar da Konstituzioari buruzko eztabaida arau goren horretan jasotako xedapen zaharkituak berritzeko? esaterako, ez da Europa edo Europar Batasuna aipatzen, baina, aldiz, aipatzen da Espainiak harreman berezia duela zenbait herrialderekin, hala nola, Filipinekin, Ginea Ekuatorialarekin, Andorrarekin edo beste herrialde iberoamerikar batzuekin, besteak beste.

Eztabaida hori behin eta berriz agertzen da topiko politikoaren armairuan eta agertzen den moduan desagertu ere bai –"Guadiana" balitz–. Eztabaida horrek, alabaina, badu dimentsio juridiko bat eta beste dimentsio politiko bat. Dimentsio biek dute garrantzi handia, eta lotuta daude eskumenak atomizatzearen gaiarekin eta "Autonomien Estatuak" jarraitzeak duen gero eta kostu handiagoarekin.

Egitura-kostuak arrazionalizatzeari buruz eztabaida dezakegu eta eztabaidatu behar dugu, baina batzuek, bide batez, lurralde-eredua uniformatze alde aurrera egitea proposatzen dute; horretarako, eskumen gehiago zentralizatu beharko dira Gobernu zentralaren esku. Baliabideak "optimizatzeko beharra" da horretarako erabiltzen duten amua. Teknokrazia politiko berri horrek, itxuraz ideologizatu gabekoak, ezkutatu egiten du arrotzat jotzen duela lurraldeen autonomiaren eredu, izan ere, haren ustez arazoak baino ekarri ez dituen adabaki deszentralizatzaile hutsa baino ez da izan.

Gutxieneko adostasunak lortzeko aukera emango digun abiapuntua litzateke benetako demokrazia plurinazionala onartzea. Kanada eta Belgikako adibideek, besteak beste, aukera ematen dute maila konparatuan egiaztatzeko formula horrek elkarrekin bizitzeko topagune bat bermatzen duela, nahiz eta hainbat sentimendu nazional elkarrekin agertu eta subiranotasunaren inguruko zenbait kontzeptu ezberdin eduki.

Gutxiengo nazionala Estatuaren barruan behin betiko eta modu iraunkorrean politikoki egokitu ahal izango da onartzen baldin bada benetako demokrazia plurinazionalak gainditu behar duela Estaturik gabeko naziorik ez dagoela dioten horien ideologia. Gainditu beharra dago Estatuaren eta herritarren artean ez dagoela birtarteko harreman-egiturarik defendatzen dutenen ideologia hori eta talde edo herri gisa ordezkartzarik edukitzea ez dela posible diotenena.

Teoriak modu artifizialean sinpletzen du eztabaida, eta kolpe batez ezabatzen du Estatu baten barruan, Espainiar estatuan kasu, elkarrekin bizi diren beste errealitate nazional batzuk badirela.

Taldeek egiten dute politika, benetako politika, ez indibidualismo atomizatuaren faktore hutsak. Estatu batean nortasun historiko sendoa duten zenbait nazio edo nazionalitate agertzen badira, gurean gertatzen den bezala adibidez, ezin dira antolatu batasun nazional baztertzaila eta eskusiboaren printzipioan oinarrituta. Zergatik? Bada, Espainiako segidako gobernu-politiketan gertatu den bezala, nazio bati protagonismo edo garrantzi handiagoa ematen zaiolako, eta bidegabea delako gainontzekoentzat. Ez da errespetatzen nazioen arteko berdintasun politikoaren printzipioa, eta ez da bermatzen subjektu politiko gisa jarraituko dutenik.

Baina zenbait eredu konparatuk –Kanada, Belgika edo Erresuma Batukoa, esaterako– erakutsi dute elkarrekin bizi daitekeela, desberdina dena errespetatuz eta aniztasunean batuta jarraituz. Kontzeptuak berriro behar dira, errealtate zaharrak gaindituz. Oinarri horretatik abiatu ahal izango da politika berria. Plurinazionalitatea onartzea giltzarria da Espainian botere politikoaren lurralde-banaketaren sistemarako, urperatu gabe ur gainean dagoen kortxo izateari utz diezaion; izan ere, kortxoak ez du norabiderik eta, gainera, betikotu eta ebatzi gabe uzten ditu arazo zaharrak, euskal edo kataluniar errealtate nazionalen politika mailan egokitu ez izanaren ondorioz eragindakoak. Zer zentzu du Konstituzioaren testuak berak “nazionalitateak eta eskualdeak” aipatzen baditu eta horiek argi bereizten baditu?, zergatik ezin da aintzat hartu Estatu gisa antolatu den horren azpian zenbait berezko errealtate nazional propioa eta ez-baztertzaila daudela?

Agintari politiko askorentzat erlijio-aniztasunaz edo kultura-aniztasunaz hitz egiteak ez du arazo ideologikorik sortzen; alderantziz, horiek onartzea eta babestea baloratzen dute, demokrazia moderno eta dinamikoaren erakusle baitira. Zergatik alderdietako agintari horiek haserretzen dira eta ukatzen dute aniztasun horren beste dimentsio bat, dimentsio nazionala alegia?

Munduaren egitura politikoa gero eta gehiago oinarritzen da maila horizontaletan. Lehen dena zen bertikala, mutur nazional zentralizatuak eskumen eta ardua osoa zuten. Orain, berriz, erabaki-gune anitz sortzen dira maila guztietan. Estatu-Nazioen egitura bertikalaren aurrean eta tamalez porrot egin zuen Europar Konstituzioak aurrekusten zuen moduan, deszentralizazioa eta erabakitzeke bezeko guneak exijitzen dituzten herriak altxatzen ari dira.

Hemeretzigarren mendeko “Estatu bakoitzari nazio bakar bat eta nazio bakoitzari Estatu bakar bat” ekuazioaren aurrean, gaur egun ezin da gizarte-bizitzaren konplexutasuna ulertu eta gobernatu demokraziaren “demos” edo subjektu politiko bakar bati atxikiz. Egia da teoria klasikoek ez dutela auzi hori ezta planteatu ere egiten, baina herritarrek estatuko kide direlako aitortzen zaien berdintasunaren printzipio berak eragin behar du sistema demokratiko batean dauden beste “demos”engan. Berdintasun printzipioa eta balore klasiko horrek eskaintzen duen ikuspegi konplexuari adimen politikoa irekiz baino ezingo diegu aurre egin errealtate demokratiko anitzak eta, aldi berean, heterogeneoak jarritako erronkei.

Ez gara asmatutako gatazkez edo gezurrezko gatazkez hitz egiten ari. Euskal edo kataluniar gizartearen gehiengo zabal batek eskatzen duen onarpen nazionalerako aldarrikapenak ebazteko beste kultura politiko berri bat behar da, eta bide horretan eragile politikoei beste kontzeptu berri batzuk erabiltzeko proposatu behar zaie. Betikotuta gelditu diren eta zaharkitu diren zenbait hitz modernizatu behar dira. Eta horretarako, adostasunaren demokrazia berrezarri dadin egin behar dugu lan, non gehiengoek eta gutxiengoek parte hartuko duten Estatuaren politikak egiteko orduan (Belgika edo Suitza horren erakusle bikainak dira), eta demos bakoitzari ahalbideratuko zaion bere demokrazian sakontzeko ariketak egiten. Dena dela, ez dira leialtasuna mendetasunarekin eta lankidetzak ukapenarekin nahastu behar, eta berriaz onartu beharko da aipatutako demokrazia plurinazionala.

Pedagogia politikoa falta zaigu. Ez dira halako proposamenak gaizkin bihurtu behar. Mundu luze-zabalen zenbait adibidek erakutsi dute nola den posible bizikidetza antolatzea ezberdintasunaren elkarrekiko ezagutzaren errespetutik eta nagusikeriarik eta ezarpenik gabeko harremanetan oinarriturik.

Demokrazia, benetako demokrazia, zalantzen eta gatazken joko bat da beti, eta diagnostikatzen eta administratzen jakin behar da. Demokrazia bidea da eta bide horretan beharrezkoa da hainbat ideia eta kontzeptu edukiz betetzea, hala nola, arduraz eta erantzukizunez jokatzeko deia, “Estatu zentzuaren” aldeko aldarria, baita “unean uneko egoerari dagokion eran jokatzeko” exijentziaren topikoa ere; horiek guztiak edukiz bete behar dira aipamen orokor huts bihur ez daitezten.

Zein da hautestontzien agindu demokratikoa? Bada, parlamentuan ordezkaritza lortu duten talde politikoei jotzen zaien erronka da, erakus dezaten elkar ezagutzeko prestutasuna dutela eta haien artean lankidetzan aritzeko benetako borondatea dutela. Richard Sennetek esan bezala, lankidetzaren ados egon gabe elkarrekin bizitzeko artea da.

Espainiako sistema politikoaren krisia ez da hamarkadetan txandakazen ibili den alderdi-bitasunaren hegemoniaren ondorioa. Aitzitik, neurri handi batean gertatu dena izan da Konstituzioa zaharkituta gelditu dela, ez baita gai izan demokrazian bizitzeko giltzarri diren zenbait gaitara egokitze, eta horrez gain, 1978ko gizarteak zerikusi gutxi baitu gaur egungo gizartearekin.

Talde politikoei prozesu hori eskuzabaltasunez zuzenduko balute, lortuko lukete beste batzuek apustu berri horren alde egitea, bizitza politikoko eragile nagusi gisa duten funtzioa berriz legitimatzen dela ikusiko lukete eta giro politikoa onbideratuko litzateke. Baina horretarako bizikidetzaren kultura demokratiko berri batean sakondu behar da, lau ardatz nagusitan adostasun berriak landuz: 1) Botere-politikoaren lurralde-banaketa egiteko modu berri bat lortu, dimentsio plurinazionala eta eskumenak banatzeko era asimetrikoak onartuz, baita aldebiko harremana, lortutako autogobernu maila bermatzeko mekanismoak etab. ere, espainiar nazioaren batasun banaezinaren kontzeptu zaharkitu eta gaindituta alde batera utziz; 2) Herritarren eskubide sozialen dimentsioa indartzea; 3) Herritarren parte-hartzearen dimentsioa balio demokratiko handiagorekin garatzea, kontsulten eta erreferendumen arauketa berria barne, eta 4) Konstituzioan Europar dimentsioa finkatzea, murrizketen eta doikuntzen ideiarekin soilik lotu gabe, eta nazio izaera duten erkidegoei europar erabakitze-prozesuetan zuzenean esku hartzeko aukera emanaz.

Konstituzioa onetsi eta hogeita hamazortzi urte igaro direlarik, indarrean jarraitzen du 1978. urtean finkatutako arau-blokearen inertziak, hazi gabeko demokrazia hauskorren testuinguruan ezarri bazen ere. Geure buruari galdetu behar diogu ea egokia ote den Konstituzionaltasun arau-multzoak epemugarik gabe indarrean jarraitzea, marmol baten gainean idatzita egongo balitz bezala eta aldaketa txikiena ere egiteko aukerarik ez balego bezala. Galdetu behar diogu gure buruari zergatik betikotu behar den garai hartan osatutako erakunde-egitura, gerora begira baino, inoluzio demokratikoaren beldurrez bizi dena; edo zergatik ez den ausardia politikoarekin onartzen, demokraziaren muinera joz, etapa birkonstituzionagile

bat irekitzea litzatekeela egokiena, demokrazia plurinazionalari buruzko eztabaidari behingoz helduz.

Dena dela, euskal gizartean nagusi da ondoko zalantza: prozesu horri ekiten bazaio, edo are gehiago, benetan gauzatuko balitz, ez al gaitu okerrago utziko, eskumenei dagokienez eta nazionalitate historiko eta euskal herri gisa dugun berezitasunaren ezagutzari dagokienez (Gernikako Estatutuaren 1. artikulua)? Posible litzateke Konstituzioaren *reformatio in peius*, hau da, atzerantz egitea gure euskal autogobernu sistemari dagokionez?

Politikaren bilakaerak erakutsi du akordioak lortzeko nahia nagusitzen dela interesatzen denean edo benetan akordioak lortu nahi direnean. Konstituzioaren 135. artikulua aurrekontu-egonkortasunaren printzipioari buruzko erreforma baino ez dugu gogoratu behar. Premiazko prozeduraz izapidetu zen, irakurketa bakarreko prozeduraren bidez eta erreferendum deialdirik egin gabe. Konstituzioaren premiazko erreforma horrek egia bihurtu zuen ondoko esaera zaharra: politikan dena da posible eta zuzenbidea, hots, antolamendu juridikoa, akordio politikoen mende dago eta horietara egokitzen da.

Konstituzioaren testua betiketzearen (sagaratzearen) ondorioz, eta xedapenen batetan aldatetaren bat eginez gero “Pandora kutxa” irekitzeari zaion beldurra dela eta, jatorrizko testua zaharkitu da, ia-ia aldeketarik izan gabe.

Konstituzioaren jatorrizko testu horrek behin bakarrik aipatzen du –egindako erreforma baten ondorioz– “Europar Batasuna”. Espainiar iragan kolonialari, berriz, zenbait keinu egiten dio oraindik ere, Filipinekin, Ginea Ekuatorialekin, Andorrarekin eta beste herrialde iberoamerikar batzuekin duen harreman berezia aipatzen baitu. Horiek horrela, guztiz ezezaguna zaio Europar Batasunean sartzeak ekarri duen errealitate politiko eta juridikoa. Gainera, ez du aipatzen zenbat Autonomia Erkidego dauden eta zeintzuk diren, eta Estatuaren eta Erkidegoen arteko eskumenen banaketari buruzko VIII. Titulua zehaztugabea eta ambigua da. Aipatutako titulua esanbidez aldatu egin da, horren xedapenen hitzez hitzeko testua modu birzentralizatzailean interpretatuz, zenbait lege organiko eta oinarritzoren bidez eta beti estatuaren eskumenen alde eginez.

Aldaketa horiek guztiak esanbidez gertatu izanak are gehiago harritzen gaitu eta berriz honako galdera ekartzen digu burura: zergatik jarraitzen du 1978an finkatutako Konstituzionaltasun arau-multzoaren aldaezintasunaren inertiak giltzarri diren zenbait gairen inguruan (esaterako, lurralde-egitura edo Estatuaren eta Euskadiren arteko harreman politikoen geroari buruz kontsultatuak izateko eskubidea onartzea)? Esan gabe doa gainera, Ajuria Eneako Itunean –ondoren Eusko Legebiltzarrak berretsi zuena– berariaz jaso zela kontsultatuak izateko eskubide hori; izan ere, Itun horren xedapen gehigarrian, berariaz babesten ziren historikoki Euskal Herriari dagozkion eskubideak, eta adierazten da, halaber, eskubide horien gaurkotzeari ez zaiela uko egiten egungo erkidegoen araubidearen onarpenagatik.

Inoiz baino beharrezkoagoa da gure autogobernuak izan ditzakeen garapenen geroko eszenatokiak definitzea. Gutxieneko adostasunak lortzeko aukera emango digun abiapuntua benetako demokrazia plurinazionala dugula onartzea li-

tzateke. Sentimendu nazional desberdinekin eta batera agertzen diren subiranotasun kontzeptu desberdinekin elkarrekin bizitzeko topagunea bermatuko luke aipatutako formulak. Horixe izan beharko litzateke gure autogobernuaren inguruan espainiar Estatuarekin egin beharreko akordio politikoaren muina.

Pasibotasunak ez ditu gauzak berez konpontzen. Alderdi konstituzionalisten blokeak luze metatu duen konformismoaren inertzia –Estatutua bete gabe dagoelarik gainera–, berriz agerian geratu da euskal gizartearen gehiengo batek autogobernu handiagoa exijitzen duenean.

Denek, jarrera politiko desberdinetatik, behin eta berriz esaten dute atzean utzi behar direla konfrontazio-, banaketa- eta liskar-politikak, eta hainbestetan errepikatzen dutenez, diskurtso politikoan ere indar handia hartu du: arduraz jokatzeko eta aurrera begiratzeko beharra. Nola ulertu behar dugu horrenbestetan erabilitako baina edukiz guztiz hutsa den adierazpen hori, euskal gizartearen zati handi batean eszeptizismoa sortzen badu?

Adostea ez da amore ematea. Gatazkak edo ulertezintasunak saihestu nahi badira, negoziazioa izango da harreman politikoak arautzeko printzipio nagusia. Ez naiz ari *ekialdeko azoketan* bezala salerosten ibiltzeaz, euskal gizarterentzat onuragarriak diren adosguneak bilatzeko oinarriez baizik. Herria eraikitzea askotan oso *glamour* sozial eta politiko txikia du, maximalismo historiko eta antzutara jolastea baino askoz txikiagoa. Baina, gizarte baten lidergoa ezin da hizkuntza erretoriko baten bidez eraiki, ezta atzealdeko teknokraziak sortutako esaldi eta ideia iradokitzailen bidez ere.

Politikaren balioa ondokoa da: geroa bermatzeko moduaren inguruan herri-tarrek egin duten apustu kolektiboa sinbolizatzen duela. Ordezkaritza politikokoek tribalismoa atzean utzi behar dute, eta hitz egin, negoziatu, akordioak egin behar dituzte, ezin dituzte gure aukerak eta geroa zapuztu; horrela, politikak berreskuratu egingo du galdutako prestigioaren zati handi bat.

Autogobernuari buruzko jardunaldi honi esker, hobeto ezagutzen ditugu Europar Batasunaren inguruko beste errealitate batzuk. Hobeto ezagutzen dugu geure burua.

Jardunaldiari esker, zenbait eredu heterogeneo ezagutu ditugu, Bavaria, Flandes, Suitza eta Eskoziak, eta ikasketa kontzeptual oso iradokitzailen lor daitetzeke eztabaida eta hausnarketa piztu ahal izateko euskal errealitate soziopolitikoaren proiektioari dagokionez.

Halaber, Europar Batasunak eredu horien heterogeneotasunaren aurrean duen ikuspegia ezagutu dugu. Ikuspegi eraikitzailea eta positiboa da, arazoei baino, konponbideei ematen zaie lehentasuna. Jardunaldi hauetan jasotako hausnarketei esker, euskal autogobernuaren geroarekin lotutako zenbait giltzarriri erantzun ahal izan diegu.

Nazioarteko Jardunaldiak, hain zuzen, Autogobernuari buruzko Lantalderen lanei balioa emateko aukera eman zuen, aniztasunaren balioa nabarmenduz. Mezezi izan du ahalegina. Proposatutako helburua, gure estatus politikoaren erreforma adostua sustatzea izan da. Bide horretan, adostasunak nabariak direla azpimarratu beharko genituzke:

- Autogobernuaren arloan erreferentziazko eredu bat gara: Gemikako Estatutuak Euskadi erakundetzen eta herritarren ongizatean sakontzen lagundu du.
- Bidearen zati bat dugu egiteke: Estatutua ez da guztiz garatu, eta ez digu utzi autogobernuaren ahalmen guztietan aurrera egiten.
- Euskal Autogobernua eguneratzeko eta egokitzeko beharraren eta auke-raren aldekoak gara.
- Euskal Autogobernuaren eguneraketari gure ereduaren berezitasunaren errespetutik eta elkarrekiko onarpenetik ekin beharko zaio.
- Itunaren izaera berreskuratu behar dugu eta adostutakoa betetzen dela bermatuko duen aldeko sistema eraginkorra ezarri behar dugu.
- Erabakitzea beti da elkarrekin jardutea, eta horrek bakoitzarentzat elkarrekiko eskakizunak dakartza beti: Estatuaren azpiko gizarteek barneko aniztasuna errespetatzeko beharra dute eta kontuan izan behar dute zen-bait lotura ezin direla aldatu horien inguruan adostasunak lortuz baino.

Komunitate horretako Estatuak ezin dituzte gai horiek nagusikeriaz ebatzi, baizik eta haien nagusitasunezko jarrerari uko egin eta emaitza irekiak izango dituzten negoziatio- edo arbitraje-prozesuak jarri beharko dituzte abian.

Oraindik onargarria da uste izatea herri honen geroa printzipio bikoitz batean oinarritu behar dela, eta horixe dela prozedura demokratikoaren benetako erdigunea: erabakitzeko gaitasuna onartzea eta itun politikoarekiko konpromisoa.

Horietako bat ez balego, euskal gatazka politikoa ez lirateke benetan konponduko. Autogobernua oraindik oinarritzen da gure etorkizun kolektiboaren antolaketa librean eta euskal gizartearen barruan eta Estatuarekiko dagoen itunarekiko nahian.

Testuinguru horretan, estatus politikoaren erreformak benetan berritu eta indartu beharko luke gaurko estatusaren izaera itundua. Gauza ez da eskumenei zerrenda baten inguruan eztabaidatzea, berezko eskumenei benetan erabakitzeko edukia ematea baizik, gatazka gertatuz gero, horren bitariko interpretazioa adostuz eta adostutakoa betetzen dela bermatuz.

Aurrean dugun arazo nagusia ez da titulartasunen eta eskumenei gaia, nork kudeatu behar duen eskumen bat edo beste, baizik eta onar dezatela euskal herritarrek gaitasuna dutela bere borondatea gauzatzeko, eta horrekin batera Estatuarekin lortutako akordioak errespetatu daitezela lortzea.

Bestalde, gure herriko aniztasuna onartzeak batzen gaitu eta hori kudeatzeko elkarriketaren, negoziaketaren eta akordioeren bidez aurrera egiteko dugun borondate politikoak ere bai:

- Ez dago itunik ez baldin badago bermeen elkarrekiko sistema bat; baina sistema hori ezin da interpretatu eta bete alde bakar baten erabakien arabera. Konponbide guztiek, azken batean, itun bat izan beharko dute, eta itun horretan benetako alde bikotasuna, bermeak eta leialtasun-baldintzak egongo dira.

Ituna, erabakitzeko egiazko askatasunaren adierazpena, euskal gizartearen eta Estatuaren barruan, gure foru ohitura onenarekin konektatzen duen prozedura bat da eta, batez ere, itunean oinarritu dira estatutuekiko izandako esperientzia biak: 1936koa eta Gernikako Estatutua.

Gainera, 78ko Konstituzioan ere badira bizikidetz-itun berri hori errazteko moduko zenbait tresna: Lehen Xedapen Gehigarria eta Bigarren Xedapen Indargabetzailea, baita Laugarren Xedapen Iragankorra ere (Nafarroarekin batera erakunde-harremanen esparru partekatu batean aurrera egitekoa). Horrez gain, Gernikako Estatutuaren eta Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Legearen Xedapen Gehigarrien arabera, gure autogobernuak berriaz babesten ditu eskubide historikoak eta geroko eguneraketa ere aipatzen du xedapen gehigarriaren bidez.

“Itunaren menpeko erabakitzeko eskubidea” proposatzea guztiz bat dator Konstituzioak eta Ekonomia Itunaren prozeduretan jasotako eskubide historikoe-tako ohiturarekin, eta eguneratu beharko da europar esparru juridikoa aintzat hartuz. Muin horren bidez ondoen adierazten da gure autogobernuaren sistemak subiranotasun partekatuaren errealitateari eusten diola. Errealitate horri esker, administrazio-deszentralizazioaren ereditutik aldentzen gara guztiz, eta geure burua subjektu politiko gisa aurkezteko aukera ematen digu europar eta mundu mailako gobernatze-sisteman.

Izan ere, Ekonomia Ituna zerga- eta finantza-prozedura bat baino gehiago da; autogobernu itundurako konpromiso bat da, zeinak akordioak lortzera eta kooperaziora behartzen duen, elkarrekiko onarpena dakarren (oso printzipio berritzailea da) eta jarduteko eremu partekatuetan elkarrekiko mendetasuna egituratzen duen.

Konfiantzak, prozedura gisa, itun ona bermatzen du. Itun ona izango da horren ondorioz aldeak sendotzen baldin badira. Eta, nola egiten da? Konfiantza sortzeko, zenbait elkarrekikotasun prozedura betetzea garrantzitsua da:

Ez dago itunik norberak dituen nahiak mugatzeko prest ez badago (amaieran zein denboran barrena) eta auto-mugaketa horri antzeko beste jarrera batek erantzuten ez badio. Itun baten jatorrian dagoen elkarrekikotasuna ere eman beharko da interpretatzeko, garatzeko eta, desadostasunik balego, arbitratzeko prozeduretan.

Euskadi-Estatu arteko harremanetan nagusi izan den itunaren aldeko bozkaziora itzuli behar dugu, berreskuratu ahal den eskubide historiko bat baita: alde bikotasunaren bermea “ad extra” eta aldeaniztasunaren bermea (erakunde komunak- lurralde historikoak- udalerriak) “ad intra”.

Laburbilduz, “subiranotasun partekatuaren gaineko maila anitzeko gobernagarritasuna” da proposatzen den eredu. Horretarako, indarreko esparru politikoari buruzko hausnarketa sakona eta lasaia behar da. Desberdinen arteko geroko bizikidetzak-akordioaren oinarriak eraikitzeke balio beharko luke gogoeta horrek, Euskadi denon proiektu partekatua izan dadin.

Ez da pasa den moda bat. Aitzitik, geldituko den eztabaida bat da eta zintzo eta arrazoizko moduan ekin behar diogu horri, biktimismorik eta nagusikeriarik gabe, demokrazian sakontzeko kultura berri batekin.

Autogobernua modernizatzearen, eguneratzearen eta garatzearen alde egiteak lotura estua du bizikidetzaren erronkarekin, eta, hori lortzeko, desberdina dena enpatiaz eta errespetuz onartu behar dugu. Zure proiektuarekin ados ez dagoena estigmatizatzea, gizartearen gehiengoaren orientazioarekin ados ez daudenak sozialki eta politikoki baztertzea, beste gizarte-sektore batzuen aurrean bloke itxiak eraikitzea ez da benetako eraikuntza nazionalerako bidea.

Euskal gizartean elkarrekin bizitzeko gai izan behar dugu gizarte konplexu honetan dauden izateko sentimendu anitzak onartuz eta integratzen saiatuz eta ariketa horren inguruan gai izan behar dugu euskal identitatea egin eta partekatzeko.

Herritarren iraganeko borondatearen ondorioz eratu ziren lege-esparruak errespetatzea ezinbesteko baldintza da oraingo eta geroko herritarren borondatea errespetatzea dadin aldarrikatzeko.

Benetan aurrera egiteko, desberdintasunekin errespetu handiagoa izango duen gobernatzeko modu berri baterantz jo behar dugu. Askatasun eta borondate osoz adierazitako adostasunean oinarritutako gobernatzeko eredu berria behar da, botere hegemonikoaren, ohituraren edo iragan erabakigarri baten indar hertsatzailean oinarritutako ez dena alegia.

Egun, identitatea elkarren menpeko diren errealitate berrien testuinguruan garatu behar da, non subiranotasuna difusoa eta partekatua den. Ingurumari horretan bermatu behar da belaunaldi-aldaketa, aintzat hartuta eraldaketa sozioekonomikoak eta aniztasun sozial berria.

Konstituzioak onartutako euskal eskubide historikoetan eta Ekonomia Itunaren prozeduretan jasotzen da ondoen gure autogobernuaren sistemak ematen digun subiranotasun partekatuaren errealitatearen muina, eta elementu horiek guztiek administrazio deszentralizazio hutsengandik bereizten gaituzte.

Halaber, elementu horietan oinarrituta autogobernuaren eguneraketak posible egiten du gure eskumen-garapena berehala betetzeko exijitzez gain, eduki berriak arautzea, hala nola, Europan Euskadik izan dezan bere funtzioa eta protagonismoa; europar erakundeetan izan beharreko partaidetza; mugaz gaindiko lurralde garapena (oraindik ez baita behar bezala garatu); nazioarteko merkataritza-ituna izenpetzeko aukera edukitzea; gure euskal kirol selekzioen ofizialtasuna onartzea; edo gure Estatuarekiko harreman berriaren barruan XXI. mendearen errealitatearekin bat etorriko diren gizarte- eta ekonomia-eskubideen zerrenda jasotzea.

Egungo ereduak aukera anitz ditu, baina ez da garatu Espainiar Konstituzioan aitortutako aniztasun politikoaren arabera, eta ez dago Europan boterearen kontzeptzioaren arloan ematen diren eraldaketen parean.

Berritzeko gaitasuna eta eskumen nahikoa badugu, eta horrela gaur egungo immobilismoa gaindituz, erakundeek gizarte-funtzioa bete dezaten garai berrietara egokitzeko modua izango dugu.

Eta gerora begira, gure autogobernuaren “garapena” da giltzarria. Gauza ez da aldarrikatzeagatik aldarrikatzea, erakutsi behar dugu nazio gisa, “euskal herri” gisa (Gernikako Estatuaren 1. artikulua jasotzen duen moduan) organikoki garatzeko eskubidea dugula (guk) eta (Estatuak) errespetatzeko betebeharra duela. Horrek izan behar du Itun Politiko berriaren oinarria. Itun Politiko berri horrek es-

kumen-ahalmen handia du, oinarritu behar da alde batetik (Estatua eta Euskadi arteko) elkarrekiko konfiantzan eta beste alde batetik autogobernu maila handiagoa eskatzen duen gehiengo sozial eta politikoari zor zaion errespetuan.

Funtsean, beste Akordio edo Itun politiko bat behar da, euskal gizartearen etorkizuna modu librean erabakitzeko borondatea jasoko duena, modu demokratikoan adierazita eta Eusko Legebiltzarrean ordezkaturuta. Itun horrek jasoko duen estatus berriaren bidez, XXI. mendean euskal komunitatea badagoela bermatuko da; euskal komunitateari emango dizkio gizarte-, ekonomia- eta lurralde-kohezio sakontzeko behar dituen gaitasunak eta tresnak; eta beste modu batez egituratuko du espainiar Estatuarekiko eta Europar Batasunarekiko harremanak. Harreman horiek, komunitate nazionalaren onarpenean oinarritu beharko dira, eta egungo autonomia erkidegoen Estatu Estatu plurinazional bihurtuko dute.

Itun berri horretan ondoko alderdiri ekin beharko zaie (zerrenda ez da zehazta izateko asmoarekin egin):

- Lehenik eta behin, Estaturua osatzeko beharri erantzutea eta edukia eguneratzea. Euskal komunitate politikoari beharrezko dituen autogobernu-eskumenak eta -gaitasunak eskuratzea. Horretarako, eskumenean esparruaren berrirakurketa bat egin beharko da aintzat hartuta Europar Batasunaren sarreraren ostean dagoen erakunde arteko eskumen banaketa. Esan gabe doa, oraindik eskualdatu gabe dauden eskumenak eskualdatu beharko direla.
- Estatuaren izaera plurinazionala eraginkorra; beraz, Euskadi maila juridiko, sinboliko, politiko eta instituzionalean komunitate nazional bat dela onartu beharko da.
- Botere judizialaren lurralde-banaketaren arabera egituratzea, Estatuaren izaera plurinazionalarekin bat.
- Euskadiri zenbait tresna ematea kanpoko proiektzioa modu zabalean landu dezan eta europar edo nazioarteko gaietan esku hartzeko berezko gaitasuna izan dezan.
- Aurrera egitea euskal kultura- eta hizkuntza-komunitatea -euskararen lurraldea-, osatzen duten lurraldeekiko harremanak erakundetzeko bidean.
- Estatu eta Euskadiren arteko aldebikotasun eraginkorra bermatzea: ezingo du lortutako akordioa/Ituna alde bakar batek aldatu.

Sakondu behar dugu batzen gaituzten alderdietan, itun berri bat lor dezakegulako elkarrekiko onarpenetik eta aldebikotasun eraginkorretik abiatuta. Gure Eskubide Historikoek –behar bezala babestuz eta errespetatuz–, bide ematen dute erakunde-itun berriak lortzeko, adosteko dugun gaitasunaren arabera garatuz, eta itun politikoak lortzeko, herritarrek berretsi eta errespetuko dituztenak.